

Euskararen plangintza Mahainguru hartan erantzun gabeko itaunak (IX)

... Oraindik minutu batzu gelditzen zaizkigu. Eta hurrerago itauna prest dago nonbait. Aurrera!

—Gabon Bermiotik! Hasteko, neure hasarria erakutsi gura deutsot Amatiño jaunari, gaurko mai-ingururako bizkaitarrik eroan ez daualako. Hau ez da itauna, neure protesta egitia baino. Horregatik ez dot Amatiñoren erantzunik bihar, gixi gora-bera jakin dakidalako zer esango deustadan.

—Zeuria da protesta; zeuria erantzuna. Nik

Hasteko, zera esango nuke nik: Euskal Herri osoarena izanik euskara, **bat bakarra** dela, Herri honen batasunaren ezagarririk eta oinarriarik nagusiarena. Euskal Herri «euskaldunaren» proiektu razional modernoaren luntzeko eskakizuna da euskararen batasuna aldarrikatzea eta horren estandarizazioa aurrera eramatea. Horretan oinarritu dela ueste dut Euskaltzaindia, eta eskakizun horri erantzuna ematea besterik ez du egin. Hogei urte baino gehiago dira, 1964ean, Baionan euskal idazleek egindako bilera hartan euskararen batasunerako lehen urrats finkoak eman zirela. Haren ondoren etorri ziren Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarrea, eta ondokoak. Euskararen batasuna eta «standardizazioa» burutu gabe baldin badaude ere, aski bideratuta eta onartuta daude. Horregatik, nere uestez, ordua da, «euskara batua» erabili beharrean «euskara» soilki esateko; ez daude «euskara batua» eta beste euskarak, euskara eta euskalkiak baizik. Italian ere, italiara estandarada za baldi denetik, italiara —ez italiara batua— eta dialektoak (toskanera, napoliera, etab.) dauden bezala. Euskara eta euskalkiak, eta kitto!

Euskararen estandarizazioaren —batusunaren— gidaria Euskaltzaindia da, jakina: bere erakuntzako helburuetako bat horixe duelako, Euskal Herriak aitortua diolako egiteko hori eta, nahi baldin bada, Komunitate Autonomoko Estatu-tuak ofizialki ezagutzen diolako euskararekiko eskuera.

Euskararen eragintzarako erakundeen artean, Euskaltzaindia bera Euskal Herri osoan eraturiko lehena eta gutxietakoa. Oso garrantzizkoa da hori, euskararen batasunari dgokionez batez ere. Bestalde, esan beharra dago, Euskaltzaindiak nolabait bere erakunde bertan ezagutzen dituela euskalkiak, euskaltzain osoak euskalkien arabera baturik daudenez. Euskararen

badot neuria; baina asmau dozula ueste badozu... aurrera! Zein da, ba, zure itauna?

—Hor esan duzue, euskara batutia dala euskararen normalizaziórako kapitulu bat, eta Euskaltzaindiak egin bihar dabela hori. Nik itaundu gura dodana da, ze leku-eukiko daben euskalkiak euskararen normalizaziórako plangintzan: Euskara batua bakarrik bultzatuko da eta euskalkiak hiltzen itxiko? Norendako izango da euskara batu hori, herri-euskerak galduten bada?... Gabon eta agur danori!

berritzen dute. Enborrak ere ez dauka adarrik gabe bizitzerik.

Batuzan euskara herritarra euskalkiekin berdin ohi da, eta euskara nazionala estandarizatua erekin. Bata eta beste elkarren kontra ere jarri ohi dira inoiz. Baina zera errepikatut beharrekioa da: euskara arbola bakarra dela, eta herriaren lurretik bizi direla enborra (euskalkiak), eta adarrak (euskalkiak), elkarrekiko bizi-harremanean eta loturan. Enborrak adarrik gabe bizitzerik ez baldin badu, gutxiago dute adarrek enborrik gabe bizitzeko.

Arbolaren konparazioa utzirik, zera esan behar da ondorio gisa, baina hasieran esandakoari berriro helduz: Euskara bakarra da (batua eta estandarizatu) eta ugaria da (euskalkietan). Euskara estandarada da «eredu» bakarra «irudi» ezberdinetan (euskalkietan) eta bizietan bizi dena. Eredurik gabe, ordea, irudiek ez dute inolako zentzurik.

Gure itaungileak Bermeotik deitu du. Eta seguruenik, bizkaieraren defentsa egin nahi zuten, nahiz eta aipatu ez. Bizkaitarrek, gipuzkoarrek, zuberotarrek edo lapurtarrek bezala, beren euskalkiaz jabetu eta jantzi behar dute, euskara estandaradaz jabetu eta jazteko. Euskalkiak lantzean dago gaxoa, euskaraz ondo jabetzeko: euskara «batua» iristeko eta hori lantzeko. Norberaren lana da hori funtsean; arazo pedagogikoa dago tartean.

Zalantzarik ez bizkaitarrek neke handiagoa dutela bide hori egiten, beren euskalkia («irudia») euskara estandarde-tiek («eredutik») urrunago da goelako. Euskalkien eta euskararen lantzean dago, azken batez, arazo horren konponbidea.

Dena dela, bizkaieraren defentsaren izenean inoiz sumatzen diren helburu politiko antuzional eta antieuskaldunak salatu behar dira.
PAULO AGIRREBALTZATEGI

(batuaren) eta euskalkien artean ez dago hasaririk. Gainera euskalkiak lantzeko batzorde berezia ere badu barruan, berak aitorturiko honako asmoari erantzun nahian: «Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla ueste du (Euskaltzaindiak), ortografiaren eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz».

Nola ulertu behar da, orduan, euskararen eta euskalkien arteko harremana?

Ezaguna da euskara irudikatzen arbolaren irudia. Euskaltzaindiaren ikurra arbola da hain zuzen, honako idazkuna-rekin batera: «Eman eta zabal ezazu munduan fruitua». Berriki arbolaren irudi berbera erabili da prentsako eztabaida batetan. Atsegin zait irudi hori. Eta egokia dela ueste dut, euskararen eta euskalkien arteko harremana argitzeko.

Euskara-arbolaren lurra herria bera da. Arbola biziko eta mardulduko bada, herria bera landu eta ongarritu behar da. Euskara ezingo da bizi, benetan herriak eta herriak bakoitzak bere eskuetan hartzen ez badu eta hori mantentzen ez badu. Hori oso kontutan hartzeko da euskararen normalizatzarako edozein plangintzatan.

Herriaren protagonismoa eta oinarritzotasuna abiaburuak dira.

Arbolaren enborra euskara bera da, berorren funtsezko batasunean. Enborra zaindu, zuzendu eta babestu behar da. Berezikiki Euskaltzaindiaren eginkizua da horixe, Enborretik gora doa adarretara, horiek bizitzeko beharrezko duten izerdia.

Euskalkiak dira arbolaren adarrak: horietatik hartzen ditu oxigenoa eta arnasa euskararen enborrak. Edonork daki arbola mardultzeko eta enborra sendotzeko eta indartzeko, adarrak inausi egin behar izaten direla. Baina enborra ez da inoiz adarrik gabe utzi behar. Enborrak eta adarrek elkar mantentzen eta bizi-

Igandean Bordel bertsolariari omenaldia Luzaiden

Bihar, urriaren 27an, omenaldi ederra eskainiko zaio Bordel, luzaidere bertsolari zanari eta famatuari. Egia esan bertso sailean aurrera goaz. Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusia Gernikaren hasiko da egun berrean.

Jose Mari Satrustegi euskaltzain jaunak, orain dela urte batzu, liburuskata bat osatu zuen Bordeli buruz eta argitara eman. Bertan koplari eta bertsolari trebe bezala azaltzen du, bere gorabeherak kontatuz.

Eta hain zuzen horren ospe haundiko gizona izan zena, bere ondorioak ematen ari da. Hargatik ez du herriak ahantzi.

Igande honetan, bertara-


tuko zarenontzat, egitarau hauxe izango da.

Goizeko hamaietan, meza; hamabietan, Udalak eskaintzen dion oroigarriaren azalpena; lauretan bertso saioa.

Bertso saio honetan hauek hartuko dute parte: Laka, Arrosagarai, Mixel Xalbador Ila, Bautista Madariaga, J. Fermin Argiñarena eta Anjelk Martikorena. Gai-jartzailea Ernest Alkat izango da.

«Egun ederra igarotzeko aukera bikaina hortxe dugu eta bertsozale zarenok aprobetxatzen jakingo duzelakoan gara. Luzaidere eta luzaidere beso zabalik hartuko zaituzte igandean.

I. PIKABEA



Bordel bertsolaria, herriko semea, igandean gogoan izango du Luzaidere.

Joxe Austin Arrietari hitz tiki bi

Hi, Joxe Austin, astebeteko oportetarik etorri eta iraganiko egunetako EGINei begirada ematean, hik Anbotopekoei egindako gutun irekia —EGIN, urriak 17— ikusidiat. Bai eta sorpresatxoa hartu ere, ni Anbotopekoa izan ez —Urgull, Ullia nahiz Igeldopekoa baizik— eta nire burua hire gutun horren zurrunbiloan sartua ikustean. Hori dela eta hitz tiki bi —kontu hau bezalako tikiak— besterik ez.


Ez dakik nola penatzen nauen, nire kulpagatik, esaten duan lotsa hori nozitu izan beharrak. Bestalde, ondo kontutan hartzen zetia hire gomendioak, bai eta idaztearen helburuaz eta «kreatzioaren zurrumbilo»-az ematen dizki-

daan eskblak ere.

«Hemen...primera-rik eta regionalik...ez zegok» omen, baina irakasleak eta ikasleak edota «prezpetore»-ak eta ume-gorriak ba daudela zirudik.

Hi, Joxe Austin, lotsa, gomendio, nahiz irakaspen berririk bahu, EGINen baino, betiko (lan)-tokian —ez zegok eta eskapatzerik— harrapatzen nauk lehenago. Nik, horrela izatekotan, gustora egingo niake hitzaspertu bat, hirean esaten dituan zenbait gauzaz zein beste zenbaitz ere; ez niake, ordea, gauzei tokatzen zaien baino haize gehiagorik eman nahi.

Esan beharrak esanda, baina adiskide segitu nahian,
Joxerra BELOKI



ARTIBIO